

## Altza

## Donosti.net Altzako Auzo Etxean

Udalak laster Donosti.net plana martxan jarriko du auzotarren alfabetatze digitala bultzatu nahian. Altzako Auzo Etxea aitzindaria izango da ekimenean.

Sara Soria 943-357037

Udalak Donosti.net plana martxan jarriko du laster hiriko auzo guztietan. Planaren helburu nagusia, alfabetatze digitalerako zerbitzua abian ipini eta do-

nostiarrak teknologia berriek eskaintzen dituzten zerbitzuetara gerturatzea da.


Lehenengo alfabetatze digitalerako zentroa Altzako Auzo Etxean ipiniko dute eta ondoren, zerbitzua auzo guztietara zabaldu da. Auzo bakoitzeko zentro bana egongo da, eta gune nagusia San Martin azokan jarriko da.

Altzan, ekimena aurrera eramateko, Auzo Etxean bi dinamizatzaile egongo dira. Horrez gain, auzotarrak zortzi

**Auzo Etxean bi dinamizatzaile ariko dira.**

ekipo iraunkorrez baliatu ahal izango dira. Gainera, aldi berean hamabi laguni teknologia berriei buruzko formakuntza eskaintzeko gela egokituko da Auzo Etxean. Beste zenbait ekimen ere eskainiko dira, hala nola bideo-hitzaldiak eta aholkularitza zerbitzua.


Ekimena-  
ren hel-  
buru na-  
gusia do-  
nostiarrak  
teknologia  
berriek  
eskaintzen  
dituzten  
zerbitzue-  
tara ger-  
turatzea  
da.



### Euskara eta Altza mintzagai

Hilaren 23an, Donostiako Euskararen Udal Patronatuko zuzendari Inaxio Agirrek eta Zigor Etxeburua Kontseiluko kideak hitzaldia eskainiko dute auzoan, Altzako Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta. Hizlariok, Donostiako Plan Orokorra, Altzako Plan Estrategikoa eta euskarak Altzan bizi duen egoera izango dituzte hizpide. Hitzaldia Casares Kultur etxean izango da, 19:30etan.

**24 ORDUKO ETENGABEKO ZERBITZUA**  
943 37 69 80 ☎ 943 37 68 80



**TANATORIO  
DONOSTIALDEA**

**DONOSTIALDEKO  
BEILATOKIA**

[www.tanatoriodonostialdea.com](http://www.tanatoriodonostialdea.com)

- HILETA ZERBITZU OROKORRAK
- Eskela zerbitzuak
- Aholkugintza juridikoa
- Lore apaingarriak, lore denda
- Punta-puntako beilatokia
- Beila aretoak
- Nazio mailako zein nazioarteko lekualdatzea
- Laguntza psikologikoa
- Hilarriak, pantecioiak eta grabatuak
- Hilakutxen erakusketa eta salmenta
- Kafetegia-jatetxea
- Errausketak

Errekalde Etorbidea, 57 Tel: 943 37 69 80\* Faxa: 943 37 68 79 20018 AÑORGA - DONOSTIA  
Fuenterrabía kalea, 28 Tel: 943 42 17 86 Faxa: 943 42 59 64 20005 DONOSTIA

### Jousilouli eta Seletah

Hilaren 24an, Jousilouli eta Seletah taldeen kontzertua egingo da Altzako Auzo Etxean, Buenawista Productions elkarteak antolatuta. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera 500 pezeta-koa izango da.

Kafea

Taberna

**RELOJ**  
*berri*

Bulebarra 20 • Donostia • (943)42 97 09